

Eguraldiak ez zuen hoztu Santo Tomas azokako giro ona

Goizeko 11etan farma-
ziko termometroak 4
gradu markatzen
bazituen ere, hotzak ez zuen
Santo Tomas azokako festa
oztopatu. Azokako lehen
orduan jende gutxi ibili bazen
ere, eguerdi aldera herritar
eta kanpotar ugari inguratu
zen pilotalekura. Aurtengoak
bazuen bai, zer ikusia. Izan
ere, ohiko txistorra eta talo
postuaz gain, baserriko sagar-
do eta babarrun lehiaketak
egin baitziren. Ixabel II.ak ere
herritar askoren begiradak
erakarri zituen.

Azoka irekitzearekin batera,
babarrun lehiaketa hasi zen.
Epaimahaia Antxeta jatetxeko
Patxi Arrutik, Zumeta jatetxeko
Iñaki Zumetak, Tragoxkako
Ramon Pozuetak eta Etxebes-
teko Lurdes Agirrek osatu
zuten. Tolosako Babarrun Elkar-
teko Arantxa Ariztimuño eta
Xabier Goikoetxea izan zituz-
ten aholkulari.

Ez zuten lan erraza izan herri-
ko sukaldariak. 28 parte-har-
tzaille izan zen orotara, zein
baino zein babarrun ederra-
goa, gainera. Aurreneko irudi-
pena, garbitasuna, berdinta-



suna, kolorea eta tamaina
baloratu ostean, **1go saria**
Migel Arrastoarentzat izan zen.
2. saria Martin Irazustak eskura-
tu zuen eta, hirugarrena, aldiz,
Markel Olaizolak.

Gorostidi baserriak irabazi zuen sagardo lehiaketa

Eguerdian sagardo lehiake-
taren eta dastaketaren ordua
iritsi zen. Epaimahai lanetan
herriko elkarteak aritu ziren:
Ibai-Ondo elkartetik Esteban
Roteta, Aitzagatik Jakoba
Errekondo, Andatzpetik Pako
Alkorta, Errozpetik
Joxe Loidi, Peña
Pagolatik Esteban
Ler- txundi, Agina-
gako Elkartetik Luis
Tapia eta, azkenik,
Joko Garbitik Juan
Inaxio Astiazaran.

Herriko hamar
baserri lehiatu ziren,
eta sari nagusia
Gorostidi baserria-
rentzat izan zen. 2.
saria Zugasti base-
rriak eskuratu zuen
eta hirugarrena
Zumitzak.

Herritarrek ere izan

zuten iritzia emateko aukera-
rik. Hauen ustetan, Zugasti
baserriko sagardoa izan zen
onena eta berak eraman
zuen herritarren saria ere.
Beraz, esan daiteke elkarte-
tako ordezkariak fin ibili zirela
hiru onenak hautatzerakoan.

Bestalde, herritarrek ere
hainbat erosketa egiteko
aprobatxatu zuen goiza. Postu
gutxi zeuden arren, bertan
egon ziren saltzaileek positibo-
tzat jo zuten azoka. Iaz baino
gehiago saldu zutela aitortu
ziguten. Batez ere, barazkiak,
eztia, esnea eta gazta erosi
zela aipatu ziguten.

Azokak bazuen beste prota-
gonistarik ere: Ixabel II.a. Txerri
gaixoak ez zuen erakarri zuen
jendea bezain ondo pasa,
izan ere, dardarka egon bai-
tzen goiz osoan. Ezta harritze-
koa ere!

Ziortzak urtero jarri ohi duen
txistorra eta talo postua ere ez
zen falta izan. Txistorra moka-
dua eta gero sagardo tragua.
Antolatzaile lanetan ibili diren
Noaualk, Ziortzak eta Udalak
oso positibotzat jo zuten goiza.

Agurtzane Solaberrieta

